



*Julene
Azpeitia
Lehiaketa 2015*

*Ipuinak
Olerkiak
Bertsoak*

Julene Azpeitia lehiaketa



2015. urtea

Argitaratzailea: _____



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak: _____



■
**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

■
*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*



KULTURA SAILA

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2015. urtea
Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga
Argitaratzailea: Durangoko Udala
Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati
Inprimategia: Gertu. Oñati
Lege Gordailua: SS-????????
2015ko azaroa

HITZAURREA..... 7

Goiztidi Diaz Basterra
Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea

IPUINAK

HAMAIKA URTE ETA BARRERIK EZ 11

Laida Aizpurua Larrinaga

AITTITTEN GUTUNA 17

Izaro Erzilla Etxegibel

BIZITZA EGUN BAKAR BATEAN 23

Arrate Erdoiza Muxika

ANE INVENTARIUM 31

Elena Olave Duñabeitia

PENTSATU, EGIN ETA ESAN..... 39

Juan Mari Atutxa Egiraun

OLERKIAK

TXITOA..... 47

Iraia Gamiz Macias

NATURA..... 51

Beñat Santiesteban Fernandez

LAGUNA 55

Leire Dudagoitia Mandiola

ARRATSALDEKO BIGARREN GUTUNA..... 59

Alazne Lopez Aranberria

BERTSOAK

MUGIKOR BAT NAIZ	65
<i>Ander Sarrigarte Garcia</i>	
KALE KANTOITIK.....	69
<i>Txaber Altube Sarrionandia</i>	
ITOTA.....	75
<i>Karmele Mitxelena Etxebeste</i>	

hitzaurrea

Loreei udan ihintza bezala datorkigu udazkenean Julene Azpeitia lehiaketako liburuxka, ipuin eta olerki bilduma ederraz gozatzeko aukera bikaina.

Urtero bezala hainbat sentimendu eta istorio elkartzen zaizkigu bihotzez eta xamartasunez idatzitako ipuin, bertso eta olerkietan. Hitzak ez bezala, idatziak ez ditu haizeak eramaten, eta halan gure artean geratzen dira kulturaren eta euskararen arteko harremana hornituz.

Askotan esaten da irakurtzea bidaiatzea dela. Ea ba, goza dezagun denok aurkezten zaizkigun istorio hauekin bidaiatzen, goza dezagun gureganatuko ditugun emozioekin. Bizi ditzagun istorioak eta bizi ditzagun euskaraz. Euskaraz ere sentitu daitekeelako gonbidatzen zaituztet bihotzez idatziriko aurtengo bilduma irakurtzera.

Eskerrik asko Julene Azpeitia lehiaketan parte hartu duzuen guztioi, eskerrik asko bihotz bihotzez. Eskerrik asko idazteko grina duzuen guztioi, horri esker asetzen baitugu guztion irakurtzeko grina.

Ziur nago emozioz biziko ditugula aurtengo istorioak. Goza ezazue beraz bildumarekin eta murgildu zaitezte euskarak eta irakurketak ematen duten bidaiatzeko aukera paregabe honetan.

Bidaia ona izan eta datorren urtera arte!

Goiztidi Diaz Basterra

Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea

juleneazpeitia

lehia keta

2 0 1 5




iguzinat



Laida Aizpurua Larrinaga

Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa • 2015 urtea



Hamaika urte eta barrerik ez



- Ez zait ateratzen!

Neskatoa ispilu aurrean dago. Adi-adi begiratzeko dio aurpegiari. Begi berdeak ditu, ilea hosto lehorren kolorekoa, sudur luzea eta ezkerreko belarriaren ondoan hiruki txiki bat osatzen duten pekak.

Bere gelako ispiluak gorputz osoa erakusten dion arren, berak aurpegia baino ez du ikusten. Atzamar erakusleak ezpain ertzetan jarri eta gorantz luzatzen ditu. Orduan une batez begiak itxi, eskuak aurpegitik urrundu eta, ezer ikusten ez badu ere, badaki porrot egin duela.

- Ez zait barrerik ateratzen! Ez dago modurik!

Nerearena misterio bat da, ez duelako inoiz barrerik egin. Irribarre txiki txikia ere ez. Aita-amak laster konturatu ziren, baina hasieran ez zioten garrantzirik eman:

- Lasai andrea -esaten zioten auzokoek bere amari- zuk ezagutzen duzu hagin barik geratu den umerik? Ez, ezta? Ba orduan, zure alabatxoari ere aterako zaio barrea.

Aitak ere antzerakoak entzun zituen:

- Lasai gizona- esaten zioten lankideek- zuk ezagutzen duzu oinez ikasi ez duen umerik? Ez, ezta? Ba orduan, zure albatxoak ere ikasiko du barre egiten.

Baina urteak joan, urteak etorri, eta dagoeneko hamaika bete ditu. Oinez, hanka baten gainean ere badaki, hagin guztiak dauzka, baina bere barrearen arrastorik ez dago inon.

Denetarik probatu dute neskatoarekin: medikuengana eramán dute eta makina handi batean sartu ea barrea gorputz barruko zirrikituen batean ageri den ikusteko, baina ez dute aurkitu. Kili-kiliak egin dizkiote neurri barik, pailazoak ikustera joan da eta txisterik onenak entzun ditu, neba bikien barre-algarak laurogei mila bider-edo entzun ditu. Dena alperrik.

- Hau bai bitxia -esan dute medikuek.

- Kontxo, hau bai bitxia -esan dute pailazoek eta txiste kontalariek.

- Bitxia zara zu, Bekokilun! -kantatzen diote neba bikiek barre algara artean.

Eta hain da bitxia neskatoa ezen munduko errekorren liburuan agertu baita azken bost urteotan, argazki eta guzti agertu ere. Aurtengo edizioan, oinekin mortadela, gazta eta letxuga ogitarteko bat bi minututan prestatzen duen gizonaren ondoan jarri dute Nerea.

Ikasturte amaierarako bi hilabete falta dira, eta gelako lagunei buruan sartu zaie Nereak barre egin behar duela udako oporrak baino lehen. Horretarako ideia-lehiaketa antolatu eta mundu osora zabaldu dute Internet bidez.


Laster hasi dira erantzunak jasotzen:

- Gure herrira janari bila etortzen den tximino kuadrilla batek dantza xelebreak egiten ditu. Hori ikusita Nereak barre egingo du. Etorri gurera! -dio Kongotik heldu den mezu batek.

Atlasa hartu eta Kongo Afrikan dagoela ikasi dute. Andereñoak esan die kakaoa eta kafea lantzen dutela bertan eta baso itzelak dituztela.

- Zeelanda Berriko hondartza zuriko kakalardo zuriek ilargi beteko gauetan egiten duten kantua entzun behar du Nereak -dio Wellingtonetik etorritakoak.

Denbora gehiago behar izan dute Zeelanda Berria aurkitzeko. Azkenean, Australiaren hego-ekialdean ikusi dute. Hango lehen biztanleak maoriak deitzen dira eta ohikoa dute gorputz osoan tatuajeak eramatea.



- Polboroia ahoan sartu eta Baga Biga abestu -gomendatu dio Mauletik idatzi duen zazpi urteko mutikotxoak.

Orain ez da atlas zabaltzeko beharrik izan. Joan den urtean ikasi zutelako Maule gertu dagoela, lparraldean, eta han ere badela euskaraz hitz egiten duen jendea.

Eta horrela beste ehunka mezu. Argazkiak ere bidaltzen dizkiete eta dagoeneko gelako horma oso bat bete dute irudiekin. Hormak zoologiko bitxi baten erakusleioa ematen du: hienak barreka, Kongoko tximinoak, astoak hortzak erakusten, eguzkiko betaurrekoak daramatzaten txakurrak, bi hanken gainean ibiltzen dakien katua, begi okerrak dituen olagarroa... Egunero, jolastoki aurreko tartetxoak erabiltzen dute hartutako argazki berriak kokatzeko.

- Tira, umeak, atsedenaldirako ordua da! -esan die andereñoak.

Nerea eta lagunak gogoko dute futbol zelaiaren atzean dagoen putzuko zapaburuak harrapatzea. Abentura bat da beraientzat. Hantxe jartzen dira makur-makur eginda eta adi begira. Hartutako zapaburuak kristalezko ontzietan eramaten dituzte gelara eta arratsaldean berriro askatzen dituzte putzuan. Gaur haizea dabil eta putzuaren inguruko harea altxa du. Barre egiten ez dakien neskatoari sudurretik sartu zaio eta orduan:





- Aaaaaatxiiipraaaaa! -doministikua eta puzkerra atera zaizkio aldi berean.

Segituan sabelaldetik gorantz zerbait datorkiola igarri du, gero eta handiagoa, eta ahora heldu zaionean soinua egiten hasi da:

- jajajajajajjejjjjajajajjjuijajajeje -aiba- jejejeje -eskua ahoan ipini arren Nereak ezin dio barreari eutsi, begiak ere txikitu zaizkio eta ezkerreko belarri ondoko pekak gora eta behera saltoka ditu.

- Orain zer egingo dugu zuretzat ekarritako polboroiekin? -dio barreka kuadrillako gozozaleak.

- Zer egingo dugu ba, jan eta Baga Biga kantatu! -atera zaio barre artean Nereari.

Gaur kristalezko ontziak hutsik heldu dira gelara.



izur-nak




Izaro Erzilla Etxegibel

Irabazlea 13 -14 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa • 2015 urtea



Aittitten gutuna



Gaur aittitte etorri da ospitaletik, amak ez dit kasurik egin baina triste dagoela igartzen dut, ez du bururik altxatzen, ez dit ahoa zabaltzen uzten eta berak ez dit azaltzen zer ari den pasatzen. Ez dut ezer ulertzen. Ohera sartu naiz dena pasatuko den esperantzarekin, amak esaten duen bezala, lo egiteak edozer konpontzen du, espero dut oraingoan ere horrela gertatzea.

Gaur nire gelakide baten amama hil da. Manex negar batean heldu da ikastolara. Gelan sartu eta ez du inor begiratu, bazekien denok begiak beragan genituela eta negar anpuluak kentzen saiatu den arren, bere samina denok sumatu dugu. Jolas-orduan berarengana hurbildu naiz eta gaiari buruz hitz egiten hasi naiz total, nire galdera txarto hartuko duen beldurrarekin:

- E... e... Manex... zelan zaude?

- Ez dut uste asko ardura zaizunik.

- Bai Manex, uste dut onena hitz egitea dela. -Hori esatearekin batera negarrez hasi da berriro.

- Min gehien egiten didana ez da nire amama hil izana, bizirik egon den momentuak ez aprobeztatzeak ematen dit amorrua. Inoiz ez dut nire amamarekin denborarik pasa, eta orain ez dagoela, ezin dut hori konpondu, ez gara konturatzen zenbat maite dugun pertsona bat galtzen dugun arte. Zuk bizirik al dituzu aittitte-amamak?

- Bai -esan diot nik siku.

- Ba, aprobetxa ezazu ahal duzun bitartean.

Eguerdian etxera joan naiz bazkaltzera. Amak negarrez jarraitzen du eta ez du bazkaria prestatu. Aittitte-amamaren etxera joan naiz korrikan. Ez dut ezer ulertzen. Manexek esandakoari berehala kasu egiten hastea

nahi dut, beraz aittitterengana hurreratu naiz. Aittitte bere eserlekuan dago eserita betiko moduan, bere ondoko leihotik sartzen den udaberriko eguraldiak argituta arkatzen batekin paper batean idazten.

- Zer ari zara idazten, aittitte?

- Gutun bat.

- Eta zer diozu gutunean?

- Horrek ez du axola.

- Eta zerk bestela?

- Gutun bat idazte hutsarekin egiten da bereizgarri eta garrantzitsu, pertsona bati gutun bat idazten badiozu, maite duzunaren edo maite izan duzunaren seinale da. Gutuna jasoko duen bat izatea eta pertsona hori zure indar guztiekin maitatzea da garrantzitsua. Arkatza, arkatza ere oso garrantzitsua da.

- Zergatik aittitte?

- Arkatzen bat lau arrazoigatik da garrantzitsua. Lehena, arkatzen bezala pertsonen ere esku bat behar dugu aurrera egiteko, beraz, kontuz ibili eta pertsona egokiak aukeratu zure inguruan egoteko eta ez ezazu beraien eskua inoiz askatu. Bigarrena, arkatzen bezala, pertsonok borragoma bat behar dugu, egiten ditugun hanka-sartzeak konpontzeko: barkatzea eta barkamena eskatzea ezinbestekoak dira egiten ditugun hanka-sartzeak onartzeko eta atzean uzteko. Hirugarrena, arkatzen duen kanpoko egurrari kasurik ez egitea da. Beharbada barruan dagoen mina gogorra eta handia da, eta egurra inoiz ikusi dugun egurrik zatarrena, baina barrukoak egiten du arkatzen bat hobea, eta ez kanpoko egurrak, beraz arkatzen bat aukeratzeko ez ezazu aukeratu ikusten duzunarengatik: gauza bera egiten ezazu zure lagunekin eta inguruko pertsonekin. Eta azkena, arkatzen arrastoa uzten dute pasatzen diren leku bakoitzean, eta pertsonoi ere gauza bera pasatzen zaigu. Kontuz ibili behar gara uzten ditugun arrastoak inorentzat kaltegarriak ez izateko. Eta ez gaudenean, paperean idazteari uzten diogunean, irakurriko duenak papera pozik hartzen badu, arantza baino lore gehiago marraztu ditugunaren seinale. Izan zaitez arkatzen on bat Malen.



- Bai aittitte.

Nire aittitte hurrengo egunean hil zen. Ez zen sendatu ospitalean. Gaixotasun sendagaitz bat zuen eta bere azken egunak etxean pasatzeko aukera eman zioten medikuek, eta horrela egin zuen.

Familia guztia Lagako hondartzara joan gara aittitteri azken agurra ematera. Ama negar batean dago baina oraingo malkoak ez dira sumendi batetik atera berri diren labaren antzekoak, baso batean dagoen ur-jauziko uraren itxura gehiago dute amaren malkoek, bortitzak eta abiadura handikoak. Ez dut ama pozik ikusten, noski, baina mina pasatuta balego bezala ikusten ditut nire berdinak diren bere begi berdeak.

Amamak gutun bat eman dit aittittek idatzita, nik gutuna hartu dut eta irakurtzeaz batera irribarre zabal bat atera zait. Aittitte idazten zegoen gutuna niretzako zen, ez beste inorentzat, arkatzarena eta gauza gehiago daude bertan idatzita: aittittek inoiz esaten ez zituen pentsamenduak daude.

Eskerrak nik ere gutun bat dudala. Aittitteren gutun azala hartu eta bertan nire gutuna sartu dut. Amak besarkatzen nauela, gutuna hartu eta itsaso zabalera bota dut mareak aittitte dagoen lekura eramango duen itxaropenarekin.

Arkatz on bat izango naiz aittitte, maite zaitut





iguinak



Arrate Erdoiza Muxika

Irabazlea 15-16 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa • 2015 urtea



Bizitza egun bakar batean



Hotz handia egiten du gaurkoan, kalera atera bainau, eta hori zerbait nahiko berria da niretzat. Normalean, hilabeteetan izaten nau ezkutatuta, beste askorekin batera. Leku hau erraldoia da, egia esan, baina nik bi lagun besterik ez dut, batek Kira du izena, oso polita da. Bere gorputza urdin kolorekoa da, eta zulo asko ditu zilbor aldetik. Maikarekin alderatuta, oso luzea da bera, ia-ia bere bikoitza. Maika askoz ere gizenagoa da. Laket ditut bere gorputzeko kolore guztiak: arrosa, morea, horia, laranja, berdea eta zuria dira gorputzean dituen koloreak, txundigarria benetan. Haiek ni baino gehiago ateratzen dira kalera, badirudi Esterrek ni baino gehiago behar dituela. Urteak daramatzat haien albotik urrundu gabe, eta triste nagoen bakoitzean, haiek alaitzen naute era batera edo bestera. Etxe honetara bizitzera etorri nintzen egunean, Maika hemen zegoen jadanik. Niri hasiera oso zaila egin zitzaidan, dendan nengoenean dena baitzen askoz ere dibertigarriagoa. Egunero entzuten nituen elkarrizketa interesgarriak, batzuetan jabea negarrez ere entzuten nuen, edota barrezka, baita telefonoz bere mutil lagunarekin hizketan ere. Elkarrizketa horiek asko gustatzen zitzaizkidan, eta egia esan, jabearen bizitza osoa nekien. Gainera, astero, Karmenek, dendako jabeak, lekuz aldatzen ninduen. Laket nuen memento hori. Ikuspegi berriak, txoko berria, lagun berriak...

Nik Beili dut izena, eta marroi kolorekoa dut gorputz osoa. Oso beroa naiz, eta ez naiz gizona. Jadanik bost urte daramatzat Esterren etxean, urtebete Karmenen dendan pasatu ostean. Lehen kontatzen ari nintzenera bueltatuz, Maika ezagutu nuen mementoa azaldu nahi dizuet. Negua zen, eta Ester nire bila etorri zen dendara. Denbora luzean egon zen Laila eta nire artean, zein hartuko zalantzaz. Azkenean, ni izatea erabaki zuen, zoritxarrez!

- Karmen, azkenien marroie hartuko dot. Oso berue da, eta ganien dekogun negureko... zer hobiaurik! Ganera, beherapenetan dekozue... aurreko urtekue da?

- Bai, denbora dezente darama hemen, egia esan. Azkenean, txera handia hartu diot.

- Normala. Zenbat da, Karmen?

- 12,90 euro.

- Hartu, gera zaitez bueltekin.

- Eskerrik asko, Ester!

Dendatik irten eta segituan bere etxera eraman ninduen. Ez zidan bere familia aurkeztu, etiketa kendu eta ziztu bizian sartu ninduen armairuan. Han ezagutu nuen Maika. Hasieran begira geratu zitzaidan, tira, hasieran denak geratu zitzaizkidan begira, baina bera izan zen hitz egiten ausartu zen bakarra.


- Triste al zaude? -isilik jarraitzen nuen- Nola duzu izena?

- Beili. -erantzun nion tonu oso baxu batean, ikaratuta egongo banintz bezala, beno, egia esan, oso ikaratuta nengoen.

- Ni Maika naiz. Zu lasai, Ester ez da oso atsegina, eta armairu hau ez da oso eroso, baina nahi duzun guztietan hemen izango nauzu; hortaz eskatu behar duzun guztia, hemen laguntzeko gaude eta. Urte askotarako, Beili.

- Bai. Mila esker, Maika.

Horren ondoren, denbora kontua izan zen bertara egokitzea. Hasieran egunak luze egiten zitzaizkidan, edozein hots, edozein mugimendu ikaragarria zen niretzat. Gainera, askotan, Esterrek Maika kalera ateratzen zuenean, ez nuen egun osoan ikusten, eta gogorra egiten zitzaidan, besteek ez baitzidaten hitz egiten. Gainera, Kira hona bizitzen etorri zenean, hasieran ez ginen lagunak. Oso lotsatia zen, eta askotan ez zigun atsegin erantzuten. Agian, denbora behar zuen, niri gertatu zitzaidan bezala. Kontua da, nahiz eta orain etxean bi lagun izan, Esterrek askotan ateratzen dituela, eta gainera, biak batera, ni armairuan bakarrik utziz.



Egun bakar batean ere ez gaitu hirurok elkarrekin kalera atera. Ematen du ez dugula elkarrekin konbinatzen.

Oraintxe bertan armairuan nago. Hotz naiz, goiza kalean igaro baitut, eta ez nago oso ohituta. Bazkalordua da, Ester bazkaltzen dago, seguru, elkarrizketa bat entzuten baitut hemendik, eta sukaldetik datorrelakoan nago. Tik-tak, tik-tak. Denbora astiro igarotzen da, oso astiro, eta ni ezin naiz mugitu, ezin dut leihotik zer dagoen ikusi, ia ez dut elkarrizketarik entzuten.

Armairua ireki du. Ni ukitu nau, kalera atera nahi nau arratsaldean ere. Maikak eta Kirak irribarrez begiratu didate, haiek ere ia ez dute sinisten. Oso pozik nago, inoiz baino pozago. Agian, Karmenen dendatik pasako gara, eta agian, ezagutuko nau, agian...

Jantzi nau eta kalean gaude jadanik. Uf, zelako hotza egiten duen! Bere lagunekin elkartu gara, batek Aitor du izena eta besteak Mikele. Oso atseginak ematen dute. Taberna batera joatea erabaki dute, hainbat plan eztabaidatu ondoren. Bidean gaudela uste dut, egia esan, ez diet ondo aditu, aurrean ditudan zuhaitzak gehiago interesatzen zaizkit. Txoriak kantari daude, haiek benetan alai dihardute eguna, ez dirudi hotz handirik daukatenik. Jende asko dago kalean, eta nire antzeko hainbat lagun ikus ditzaket.


Heldu gara. Ni aulki batean utzi nau, oso gustura nago hemen, hainbat elkarrizketatan murgilduta. Orain ez naiz lotuta sentitzen, aske nago hemen, oso aske. Nire saltsan murgildurik, argia ikus dezaket, mugitu egiten nau, arnastu dezaket, bizitza arnastu dezaket, zoragarria benetan.


- Gorka itxi biher izen dot. Badakit denbora asko daroagula batera, baina oin beste era batera maite dot. Ez doste berbarik eitten. Bueno, pasauko jako.

- Lasai Mikele, denbora kontue izengo da, denboriaz dana osatzen dala esaten dabe. –uauuuu! Elkarrizketa interesgarri bat!

- Bueno, aire apur bat hartuko dogu ezta? Guezan kanpora.

Kalera irten gara, baina Esterrek ez nau jantzi. Bere zorroan eskegita narama, eta ez noa batere gustura. Erori egingo naiz, eta bera ez da





konturatuko! Urduri nago, oso urduri. Erortzen banaiz, ezin izango naiz altxatu, eta zapaldu egingo naute. Ester, mesedez. Ester, jantzi nazazu mesedez. Noski, ez nau entzuten. Erori egin naiz dagoeneko. Hemen utzi nau, eta ez da ohartu! Ez du atzera begiratu, eta inork ez dio ezer esan.

Denbora dezente pasatu da dagoeneko, eta nik lurrean jarraitzen dut. Kale hau nahiko iluna da eta ez da jende askorik pasatzen. Pausuak entzuten ditut, norbait dator, hurbiltzen ari da! Ukitu egin nau, altxatu egin nau!

Oso handia da bera. Ile laburra du eta oso begi politak, urdinak direlakoan nago. Nahiko zikin dago, ematen du ez dela aspaldian garbitu. Oso ondo tratatzen nau, eta gainera, denbora guztian jantzita narama. Oso zorionsua naiz, oso. Ez dakit nora goazen, baina zorionsu naiz. Pertsona bakartia dirudi, denbora luzea baitarama oinez, eta ez da inorekin gelditu, ematen du ez duela gauza interesgarririk egiteko. Bat-batean, tren geltokian gelditu gara, nonbaitera goaz.

- 10 minutu barru aterako da trena. -esan dio han lanean zegoen tipo batek.

- Eskerrik asko.

Banku batean eseri gara eta jantzita daraman berokitik ogitarteko txiki bat atera du, egia esan, ez dauka itxura onik, baina berak gogotsu jan du, gose zela argi geratu zait. Trena dator, eta altxatu egin gara. Nora ote goaz? Urrun ote goaz? Auskalo. Egia esan, oso urduri nago, baina urduritasun ona da, seguru nago. Pozik sentitzen naiz, nahiz eta Maika eta Kira ez ditudan berriz ikusiko. Arduratu egingo dira, baina tira, nik ezin dezaket ezer egin, bost urteren ondoren, zortea izan dut, izugarrizko zortea!

Oraindik ez gara ailegatu, baina hainbat lekutan gelditu gara. Ez dela asko falta susmatzen dut, tira, aitortu behar dut ez naizela inoiz tren batean egon.

- Hurrengo geralekua, Bilbo.

Uuau! Imajinatu dezaket Bilbo nolakoa den. Maikak eta Kirak askotan kontatu didate, haiek askotan egonak baitira, Esterrekin noski. Oso

handia dela esana didate, noizbait joanez gero maitemindu egingo nintzela.

Altxatu egin da. Bai! Bilbora noa! Bilbo ezagutuko dut! Ezin dut sinetsi. Parke handiak ikusi ahal izango ditut, oso handiak. Kale ugari bisitatu ahal izango ditut, eta nire antzeko gehiago ikusi. Kirak, bertan, zubi erraldoi bat ikusi zuela esan zidan, Maika nahiko despistatua da, eta ez zen ohartu. Ibiltzen hasi gara, eta momentuz ez ditut parkeak ikusten. Kale oso estuetatik gabilta, eta oso tristeak dira gainera. Ez zait gustatzen ikusten dudana jendea. Ez dut ni bezalakorik ikusten, eta jantzita daramaten arropa oso zaharra da, eta zikina. Pena ematen didate, ez dirudi zoriontsuak direnik.

- Aspaldiko Karlos. Zelan zaude? –Karlos deitzen omen da nire jabe berria.

- Tira, izan ditut garai hobeak, Santi. Zu zer moduz?

- Ondo, ondo. Aliziari lana eman diote, eta apurka-apurka aurrera goaz. Ikusiko duzu nola bueltatuko den guztia bere onera. Seguru nago, Karlos. Eta badakizu, hemen gaude behar duzunerako. –oraintxe ulertu dut dena. Nire jabea txiroa da, horregatik hartu nau, kalean ikusten duen edozer baliagarria egiten zaiolako. Gizajoa, lagundu ahalko banio... Tira, Santik atsegina dirudi, lagun onak direla iruditu zait, ez dago bakarrik.

- Eta orain nora zoazte? Ba al duzue planik?

- Ez, motel! Badakizu hemen egunak ez direla asko aldatzen. Eguna diru eske dihardugu, Karlos. Baina tira, gaur egun berezia da, hilabeteak dira ez zaitudala ikusi. Joango al gara hiriko erdigunera?

Bai! erdigunera! Beno, suposatzen dut zentroan parkeak egongo direla... Karmenen dendan gauza oso garrantzitsu bat ikasi nuen behin: esperantza ez da inoiz galdu behar.

- Tira, goazen. Gainera, gose naiz.

Ibiltzen hasi gara, astiro goaz, baina ez zait axola, elkarrizketa interesgarria baita, gero eta gehiago ezagutzen dut Karlos. Lagunak egin omen ziren orain dela urte batzuk, biak langabezian gelditu omen ziren

orain dela denbora dezente, eta, tamalez, etxebizitzarik gabe. Ematen du ez direla zoriontsu kalean bizi direlako. Niri oso tristea iruditzen zait, ni bezalako askok kalean bizitzea besterik ez dugulako nahi, eta haiek, aldiz, kontrakoa nahi dute, lan bat aurkitu eta ohe goxo batean lo egin, epeletan. Noski, haiek nahi duten guztietan atera daitezke kalera, nahi dutena egin dezakete! Nik ez.

Eztabaidatzen hasi dira, ez zait batere gustatzen. Karlos oso urduri dago, eta ni bustitzen hasia naiz, ez dakit, agian izerdia da, ez baitut euririk ikusten. Gero eta azkarrago goaz, oso azkar. Laket dut abiaduran joatea, dibertigarria baita gehienetan, baina oraingoan ez. Arduratuta nago, gainera bide estua da eta hainbat hesi daude ertzetan. Kezkatuta dago, agian erantzi egingo nau, eta ez dut nahi, nik berarekin egon nahi dut, bera asko gustatzen zait, bere bizimodua laket dut.

Erantzi egin nau, bortizki. Ez nago ondo, zaurituta nago, eta bustita, oso bustita. Orain bai, euria ari du, gogotsu erortzen da lurrera, Bilboko kale estu eta arriskutsu hau zeharo bustiz. Tristeza da euria, tristeza da Bilbo. Nire lagunak oker daude, hau ez da paradisua, ez nago maiteminduko ninduen lekuan. Min handia dut, haria askatzen hasia da, hari marroi lodi eta beroa gero eta gehiago ari da askatzen, uste dut hesi bateko punta batean nagoela harrapatuta.



Nire amaiera omen da, eta gauzak ulertzen hasia naiz. Agian, Esterren etxean salbu nengoen, ezin dut kontrakorik esan, baina ez nintzen zoriontsu. Egun bakar batean, sei urtetan baino zoriontsuagoa izan naiz, eta denbora horretan ikusi ez ditudan gauzak ikusi ditut hogeita lau ordu baino gutxiagotan. Ez naute ondo zaindu, ezin izan naiz kalean bizi, baina ez naiz bakarra nahi ez duen bizitza batean sartuta dagoena. Karlos ere ez zen zoriontsu kalean, gustatuko litzaidake bera Esterren etxean biziko balitz, leku bero batean, jateko ugari duen txoko batean, eta ni, bitartean, parke erraldoi batean, zuhaitz ederrak eta elkarrizketa interesgarriak entzuteko prest.

Paradisua litzateke, benetan.

iguanak



Elena Olave Duñabeitia

Irabazlea 17-18 urte bitartekoen sailean

Fray Juan de Zumarraga Institutua



julene azpeitia lehiaketa • 2015 urtea



Ane inventarium



14/11/13 6:30 pm

Egunero bezala unibertsitatetik irten berri. Egunero bezala autobusa hartu dut etxera heltzeko desio bakarrarekin. Egunero bezala ama da etxean, ni noiz helduko zain. Egunero bezala, errutina. Baina, gaurkoan, ez nau egunero bezala agurtu, larritasun puntu bat sumatu diot aurpegian. Nire alboan eseri da, begiradarekin hitz egin nahiko balu bezala, eta eskutitz bat eman dit eskura, egunero bezala bere eskuen beroa sentitu dudalarik.

Bertan, Aneren izena irakurri dut, eta berehalako hotzikara sentitu dut. Anek aspaldian ihes egin zuen Irlanda kostaldeko herrixka txiki batera, Youghal izenekoa. Igaro dira dagoeneko urte bi bertara ihes egin zuenetik, bere bizitzako poztasun iturri bakar hark bultzatuta.

Ezinegon eta urduritasunaren pean eskutitza irakurtzen hasi naiz.

Kaixo, Maddi.

Aspaldian ez zaitudala idatzi, konturatuko zinen. Bada, gauza asko izan ditut buruan joan nintzenetik, eta gezurrik ez dizut esanen, zurekin eta gure herriarekin akordatu naiz gau eta egun. Arestian izan ditugun gorabeherak gorabehera nire bihotz zati bat izaten jarraitzen duzu, eta horregatik izkiriartzen dizut karta hau zuri eta ez beste edonori.

Jakinaren gainean egongo zinen, handik joan nintzela Johnek bultzatuta, bai, hain gutxi gustatzen zitzaizun John. Beno, aitortu beharra dut denborak aurrera

egin ahala konturatu naizela nire patuak ez dituela amodio kontuak gogoko, Johnek ematen zidan poztasun hori itzaletan galdu balitz bezala desagertu baita. Jada ez dut maitasun keinurik sentitzen herrixka honetako inongo bazterretan, eta John gero eta arrotzago sentitzen dut.

Gero eta goibelago sentiarazten nau egoera honek, eta tristura eta bakardadea baino ez ditut sentitzen nire baitan, eta nire benetako etxera, sorterrira, itzultzeko desioa baino ez dut.

Hemendik alde egiteko indar nahikoa banu, ez nizuke ezer eskatuko, baina, ezinbestekoa dut zure laguntza, Maddi. Arren eskatzen dizut, laguniezadazu, ahal duzun neurrian behintzat.

Eskutitza esku artean, pentsatzen hasi naiz. Zerk bultzatu du Ane bat-batean larritasun honekin idaztera? Sufrimeduaren pean bizitzeak? Nahigabeak? Bere etxearen faltak?

Hainbat hipotesi darabiltzat buruan, baina hipotesiak hipotesi dirautenez hauek ezagutu arte, Youghalera joatea erabaki dut. Apika, gure arteko harremanak ez du iraun nahi bezala, baina, behintzat, gaurtik aurrera, iraun dezala nahi dudana bezala.

14/11/04 10:30 am

Maletak aireportuan jaso eta taxi batean Youghal herrira bidean jarri naiz. Ane nire bidaiaren berri izan zezan eskutitz bat idaztea otu zitzaidan, baina Johnek hau irakurtzeko posibilitateaz ere akordatu nintzen, beraz, ez idaztea erabaki nuen. Hortaz, hemen nago, Irlandako kostako herrixka batean, entzun dudanez, Moby Dick filmatu zen lekuan. Ulertzekoa da Anek hona etorri nahi izatea, nobela bateko paraje ederrenak gogora ekartzen baititu, eta Anek duen irudimen horrek horrelako leku baten premia du, askok etxetik gertu nahiago dugun arren.

Herrian barrena Aneren eskutitzean azaltzen den helbidera heldu, eta atea jotzea erabaki dut. Bat-batean gizon zahar batek ireki du atea, marinel antza hartu diot, agian, herri honen giroak itsas haizez kutsatu ditu nire pentsamenduak.



Anegatik galdezka hasi bezain pronto, gizonak sartzeko eskatu dit. Ingeles trakets batean hitz egin diot, eta ulertu dudanagatik Anek duela aste bat utzi zuen alokatuta zuen etxe hau. Hala ere, marinel antza duen gizon honek Aneren gelan sartzeko aukera eman dit, nire larritasun aurpegiari erreparatuta laguntza eskaini nahi izango balu bezala.

Gela hartan sartu bezain pronto Anek hain gustuko zuen izpiliku usaina usaindu dut. Aneri gertatutakoaz zer edo zer topatzeko asmotan inventarium moduko bat egiten hasi naiz.

Mesanotxean:

- Tabako kaxa bat, barruan hiru zigarro besterik ez. Oroitzapenek erretzen gaituzten legez erretzen zituen berak zigarroak.
- Pink Floyden *Wish you were here* diskoa, eta barruan honako hau idatzita: *We're just two lost souls swimming in a fish bowl*
- *Year after year, running over the same old ground*
- *What have we found? The same old fears.*
- Izpiliku kolonia.
- Aneren txikitako erretratu bat, aita eta amarekin, eta atzealdean ohar bat: *nekez uzten du gesalak itsasoa, ez hareharriak basamortua.*

Armairuan:

- Hiru soineko marradun.
- Lau gona, bat grisa, bi urdin eta loredun bat.
- “Txupa” bat. Poltsiko barruan mukizapi batean poema gisako bat dago idatzirik:


Zurekin eman nahi ditut egunsenti epelenak,

zure magalean etxeko berotasuna sentitzen dudalarik.

Zurekin eman nahi ditut arrastiro asmatzen diren oskorri hotzenak.

Zurekin eman nahi ditut egunik beroenak,

Kristal txikietan apurtuta sentitzen naizenekoak.





Hainbestegatik, zurekin eman nahi ditut geratzen zaizkidan azken segundoak, hasperen bakoitzean infinituak direla diruditenak.

- Kamiseta zuriak eta urdinak.
- Barruko arropa, bai mutil eta bai emakumezkoenak.
- Gizonezkoen lau praka bakero.
- Gizonezkoen lau polo zuri.

Komoda gainean:

- Gauean itsasontziz paseoa joateko bi sarrera, apurtuak.
- Kaier marroi bat, lore zahar batzuek orrialde bat markatuta, bertan honako hau irakur daiteke:

Urriko haize epel horrek kilimak egin zizkidanean gisako sentimendua sentitu nahi dut berriro, gau hartako goxotasuna.

Baina begiak ixtean ohartu naiz, oroitzapenetan preso baino ez dudala jarraitzen, iragana den hori oraina bihurtuz, aurrera jarraitu ezinik.

Eta haizeak bere horretan segitzen ez badu ere, begiak ixtean nirea sentitzen dut berri ere goxotasun hura, ez dagokidan errealitate bat bizi dudalarik.

Neure burua engainatzea izango da errazena, eta, nekez bada ere, ilunabar bakoitzean kanto berean egonen naiz, inoiz helduko ez diren laztanen esperoan.

Inoiz itzaliko ez diren argien baitan orduak emanik, bakardadearen konpainia ezin hobean.

- Gure herriko mapa bat, eta gainean malko batzuen arrastoak hauteman daitezke, eta atzealdean, hau idatzita:

Nostalgia sentitzen dut nire herriarekin oroitzen naizen bakoitzean.

Nostalgia sentitzen dut gaurko kostaldetik, nire aberriko kostaldea ikustea desiratzen dudana bakoitzean.

Nostalgia sentitzen dut nire esku hotzak, bata bestearekin elkartzen ditudan bakoitzean, noizbait norbaitek gaurkoan izoztuta dirautenak berotu zitueneko nostalgia.

Nostalgia sentitzen dut, zilegi zenagatik borrokatu direnengatik, eta orain memoria hutsean baino ez dutenak gordetzen borroka desio hura.

Gainera, askotan, nostalgia esperantza delakoarekin elkartzen da, batez ere, nire egiazko herrira itzultzeko esperantzak aurkitzen nauenean.

Nostalgia sentitzen dut, baina nostalgia sentitzea era batera edo bestera, oroitzapen onek sortzen dute, gaurkora arte, nolabait, gauza onak pasa direlako nostalgia alegia.

Jakin minez bustirik, Aneren berri izan nahi dut ahalik eta lasterren, eta orain arte aurkitu ditudan gauza hauek guztiek nire larritasuna baino ez dute areagotzen. Nostalgia sentitzen duela argi dago, baina zergatik? Johnek maitatzeari uko egin diolako? Anek gure herrian berriz izan nahi duelako? Zer edo zergatik, honek amaiera ona izango ez duelako susmoa dut.

Bat-batean agurearen pausu hotsak sentitzen ditut esku artean zerbait dakarrela. Ulertu dudanagatik, eskutitz bat aurkitu du salako izkina batean nire izena idatzirik duena. Nolabaiteko ezinegon eta beldur sentipen batek itotzen du nire gorputza, eta sentimendu horrekin irakurtzen dut amaigabea dirudien gutun hau.

14/10/18

Ba al daki norbaitek bizitza zertan datzan edo zertarako egina dagoen? Apika, bizitzeko soilik bizi dugu bizitza, baina bizitzea zer da? Norbaiten pean egotea al da bizitzea? Maite duzunari uko egitea ote da? Edo, besteen esanetan, arriskatu barik irautea da bizitzea?

Ez dakit, eta ez dut inoiz jakingo, baina bizitzen saiatu naiz gero. Arriskatu naiz, nire herri maitea urrun utzi dut, beste maitale batekin ordezkatu ahal izango nuen esperoan. Baina, jakina, beti ez dira gauzak norberak nahi dituen eran gertatzen, baina gertatuko balira?

Nire kasuak ez du zertan zure bizitzan eraginik izan Maddi, badakit beldurra diozula maitatzeari, maitatua sentitzeari, eta bizitzari zentzu orokorrean. Baina



arriskatu, ni arriskatu naizen legez, eta errukitu Johnez, min egin didan arren, betiko akabatuko baitut nik min hori.

Egunak pasa ditut dena aldatuko zelako esperantza hutsak sostengaturik, bizitzak berriz poztasun pittin bat ekarriko zidalakoan. Beharbada, gehiago itxaron beharko nuke, edo beharbada ez. Gelditzen zaizkidan kemen eta indar guztiek kosta honetako itsaslabar ederrenetik hegan egingo dute, memento batez behintzat haize epelak eraman nazala, horrenbeste maite dudan askatasunerantz.

Beraz, arren eskatzen dizut, imajina ezazu amaiera polit bat nire bizitzarako, ahaztu errealitatea eta txikitan hain gustuko genituen ipuin horietako amaiera bat asma ezazu niretzat. Lehenago esan nizunez, nobela batean bezala bizitzeko jaioa naiz ni.

Oh: ahantzi beldur guztiak, baina ez nazazu ahantzi inoiz.

*“Maite ditut maite
geure bazterrak
lanbroak
izkututzen dizkidanean...”*

Ane.



igunak



Juan Mari Atutxa Egiraun

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



julene azpeitia lehiaketa • 2015 urtea



Pentsatu, egin eta esan



Mozoloa aspalditik dabil uluka, eta gaur ere ilargi betea egongo da zeruan. Oraindik ez da izango ohetik jaikitzeke ordua, iratzargailuaren txirrinak ez duelako jo, baina mozoloak badaki argia pizteko tertzioa dela.

Logela ondoko intxaurrondoan pausatuta mozoloak uluka jarraitzen duen bitartean, argia piztu du. Begiratu dio komodaren gainean dagoen iratzargailuko erlojuari, eta ikusi du bostak izateko bi minutu falta direla. Ohetik jaiki egin da. Ohean jantzita eduki duen arropa senarraren juboia zintzilikatuta dagoen gakoaren alboko iltzetik eseki du. Eta ohe ondoko aulki gainean egon diren barruko gona, gona, blusa eta gona aurrekoa jantzi ditu. Gero, artilezko lepoko beltza sorbaldatik ipini eta sukaldera joan da. Baldetik azpilera ura botatzen izan duen bitartean, esnekamionetak baserritik hurbil dagoen errepedeko bihurgune handian ateratako burrundara entzun du. Ordubete geratzen zaio bere burua prestatu, behiak jetzi, eta esnez betetako baldea errepedeko bihurgune handiraino eramateko.

Mozoloa isildu egin da. Eta eguna argitzen hasi da. Han urrunean, mendiaren ostetik zerurantz zuzentzen diren hiriko argi-printzak ikusten dira. Eguna eguzkitsua izango da segurutik, baina oraindik hotza da eta, lar berotzen hasi orduko, artoak jorratzeari ere ekin beharko dio.

Uraz betetako azpila harrian ipini, eta aurpegia garbitu du. Harritik behera joandako txorrotadek errepara jaustean ateratako hotsa entzun du,

eta ur gehiago ez gastatzea erabaki du. Badaki edateko eta garbitzeko den ura alferrik galduz gero, lehenago joan beharko dela auzoko iturrira eta, handik, esku bakoitzean baldekada bana ekartzeko, ordu laurden baino gehiago behar du.

Aurpegia lehortu du zapiaz, jantzi du jertsea, eta sorki beltzarekin mototsa babestuko dion buru-estalkia atondu du.


Zurezko aulki txikian eseri denean, metalezko baldea Pintaren errape handiaren parean ipini du. Behia kateaz lotuta dago askara, baina artega sumatzen du argi motela ematen duen farolak horizatutako kortan.

Esku bakoitzarekin behiaren erro bana estutu, eta haiei beherantz tiratzen hasi da txandaka. Errapetik ateratako esne-txorrotada bakoitzak “tsirrist” zaratatxo ateratzen du baldera jausten denean. Hamar minutu inguru daramatza eraisten eta, behiak artega egoten jarraitzen duen arren, azunbre bat esne sikiera batu du. Esku-azpiaz behiari atzeko hankan jo eta “geldi!” oihukatu dio. Baina behi gaztea geratu beharrean gero eta artegago dago, eta ostikada bat bota du atzeko hankaz. Ostikadaz baldea jo du, eta hau irauli egin da; eta orduan lurretik zehar joan da han batuta egon den esne-kantitate bat. Kuartillo bat esnegatik esnetegikoek ordainduko zioten dirua, ez du jasoko.

Pinta susara egon daitekeela pentsatu du, eta Gorri behiarengana joan da esnea batzera. Eta Gorri jetzi duenean, Zuri eraisten hasi da.

Hiru behien esnearekin baldea bete duenean etxe ondoko errekan sartu du. Mendi aldetik ur-lasterra hotz dator, eta hotzari esker ez da galduko baldean dagoen esnea. Esneketariaren kamioneta errepedeko bihurgune handiraino heldu orduko gosaltzeko astia hartu du, eta bezperako afarian geratutako ogiarekin egindako esne-zopak jan ditu. Arestian batutako esnearekin esneketariarengana joan aurretik logelako ispilura ondoratu da apur bat maneatzeko. Senarra lotan dago ohean. Hark gauzez egin du lan galdategian, eta bera kortan ibili den bitartean iritsi da etxera.

Esneketariak gidatutako kamionetaren bozina-jotzea entzun duenean, baldekada esnea errekatik atera eta errepedeko bihurgune handiraino



eraman du. Han, esnea baldetik kamionetako kantinera pasatu orduko esan dio esneketariak:

- Esne-laginak hartu behar ditut.

Esneketariak bi flasko bete dituenean baldetik hartutako esneaz ezin izan da isilik egon, eta hari erantzun egin dio:

- Esne honi ura, nik barik, gero, botilaratuta kaletarrei salduko dioten esnetegikoek botako diote.

Esneketariak buruaz adostasun zeinua egin arren ez du ezer erantsi eta, baldeko esnea kantinan hustu ondoren, esne-kamioneta abian jarri du. Baserrira beste inor ez da azalduko segurutik, hurrengo goizera arte.

Eguna argitu den arren, egunaren argia sartzen ez den gela ilunera joan eta, horman dagoen txaramelari eraginda, argia isiotu du. Bonbillaren argiari esker ikusi du oraindik fresko daudela iluntze-bezperan ortutik etxeratu zituen babak, porruak, lekak, tipulak, letxugak eta azenarioak. Baina hala eta guztiz ere, ernegatzen jarri da; zeren, kalean dituen bezeroei dendetakoak baino ortuari hobeagoak eskaini arren, berak hangoak baino merkeago saldu behar izango dituelako.

Itxura onena duten ortuariekin betetako otzara sukaldera eraman du. Eta ondoren, sukaldeko mahaira eserita txokolate eta ogiaz egindako kopaua jan du. Gosaldutakoan, artilezko lepoko beltza kendu, eta jertse iluna ipini du. Eta abarken ordez abarketak jantzi ditu.

Sukaldetik logelara joan da, eta hemengo komodako ispiluan islatuta bere soina ikusi du. Bere kautan esan du urteak ez direla alferrik joaten. Kolonia-uraz kokotea busti du apur bat eta, senarrak lotan jarrai dezan, leiho-oholak hobeto itxi ditu.

Sukaldera itzuli denean horma bateko apal gainean dagoen irratia isiotu du. *Radio Nacional*etik Alemanian, Frantzian eta Ingalaterran bizi diren espainiarrentzat zorion-agurrak eta musika eskaintzen ari direnez, “partea” entzuten hasi arte itxarotea erabaki du.

Surtara aurreratu da, eta bertan hiru ilinti ipini ditu bata bestearen ondoan. Ilintiak zotzekin, arto-kapaxekin eta arrautza-oskolekin estali

ditu azpiko aldetik eta, pospoloarekin isiotu ondoren, sua eman dio estaldurari. Hauspoaz putz egin ostean ilintiak ere apurka-apurka gorritzen ikusi dituenean, laratzeko kakotik galdara eskegi du. Handik lasterrera, galdararen barruan dagoen anabaka astiro-astiro egosten hasi da. Irratitik datorkion “partearen” hasierak goizeko zortziak direla adierazi dionez, eskumako beso eta eskuarekin otzara besapean estutu eta kalerantz abiatu da. Etxeko katuak miauka jarraitu dio atzetik, harik eta galtzada ertzeko hariztiak baserria ezkutatu duen arte.

Behin Durangora helduta, Calle Barriako bezeroari bere atari barruan utzi dizkion porru eta azenarioekin eman dio hasiera etxez etxeko banaketari. Calle Barriako atari hartatik irtendakoan, berriz, espaloitik zehar Santa Anarantz joan eta, gero, eskumarantz hartu du. Carlos VII.a izena duen kalean aurrera egin, eta udaletxera iritsi orduko dagoen ultramarino-dendara sartu da. “Egun on!” esan du barruratzeaz batera; eta, salmahaiaren ostean dagoen saltzaileak ikusi duenean otzaran ekarritako ortuariak dendako erakusleihoan ipintzen, egun ona opatu dio gaztelaniaz.

Erakusleihoko apalean babak, letxugak, lekak eta tipulak ipintzen izan dituen bitartean, berak ere entzun du bata urdinaz jantzitako saltzaileari salmahaiaren ostean zutik dagoen gizonezkoak eman dion irakaskizuna:

- Antzinako hiria da Durango, zeren, 1483ko irailaren 19an Gaztelako Erregina eta Bizkaiko Anderea zen Isabel Katolikoak hiriaren pribilegioak zin egin zituen Santa Mariaren sarreran zegoen Olmedal izeneko zubiaren erdian...

Ortuariak ultramarino-dendan txukun ipinita geratu direnean, salmahaiaren alde banatan dagoen bikoteari erantzunik jaso ez duen “Agur!” esan eta dendatik atera da. Goyencalle kalerantz doalarik burura datorkio Isabel Katolikoak Durangogatik egin zuen beste egingo dutela, beharbada, baserrietako jeneroa astoetan zein trenean goizero Merkatu-Plazara ekarri, eta bertan saltzen ahalegintzen diren andrazkoek.

Goyencallen dagoen arrandegiko atea ireki, eta hango bezeriaren artean nahastatzeaz batera entzun du bizkar aldetik:



- Aspaldiko! Zelan bizi gara?

Itaunak zirrara eragin dio lehendabizi. Eta ondoren gazte denbora ekarri dio burura. Gogoratu da orduan gustuko izan zuela orain txera egin dion gizona; sasoi hartan paper-fabrikari enplegatu zen mutil galanta izandakoa. Eta bere buruarentzat esan du gauzak aldi hartan gura zituen bezala gertatu izan balira, orain ez ziola gezurrik zertan bota behar izango. Baina gezurra esan dio:

- Ondo bizi gara! Bizi garan moduan biziz gero, ezin daiteke eskatu hobeto bizitzerik!

- Ondo bizi zarela jarraitzen duzu hain dotore! -erantzun dio irribarretxoak eginez, aldi baten bere senargaia izan zen etxagun handiak.

- Tira -esan du; eta kasik ihesi arrain-saltzailearengana joan da.

Aspalditik daki bakoitza beraren patuari ezin zaiola aurre egin. Horregatik, aldi hartan senargaitzat izan zuen mutil laguna paper-fabrikari enplegatu zenean, haren etxekoek errekadu egin zioten jauretxeko alabari eta, orduan, mutil galantak, ezkontzeko sasoi iritsi zitzaionean, bera baztertu eta etxe oneko neska hura hartu zuen emaztetzat.

Amets egiten jarraitzea alferrik dela pentsatzen du eta, behinola emaztetzat hartu gura ez zuen gizona arrandegiko salmahaiaren parean osteratu hurreratu zaion arren, berak bazkaria egin barik dauka oraindik.

Libra bat sardina erosita eguerdia baino lehen itzuli da baserrira. Sukaldera sartu da, eta pitxerra ez du ikusi harrian. Uste du senarra ohetik jaiki denean, auzoko iturrira joango zela uraren hila.

Kalerako arropak erantzi, eta lanerakoak jantzi ditu. Txingar motelekin isiotuta dauden ilintiak hauspoaz piztu, ganaduarentzat egosita dagoen anabaka larazetik kendu, eta ilintien gainean trebera ipini du. Eta treberaren gainean jarri du berotzen, bezperako bazkarian sobratutako indaba-lapikoa.

Baserri ondoko hariztian kukua kukua airoso entzuteak adierazi dio eguzkiak oraindik ez duela lar berotzen. Beraz, solora joan eta artoak jorratzen hasi da.

Ordu laurden inguruan aritu da aitzurra ganoraz astintzen, baina, halako baten, burua jaso duenean, galtzadatik berari begira dagoen Don Salustiano erreparatu du.

- Eguerdi on izan dezala berorrek! -opatu dio sotana eta kapela beltzaz jantzita dagoen apaizari.

- Baita zeuk be izan dezazula! -erantzun dio buruaz erreberentzia-zeinua egin ahala. Eta berehala itaundu dio- Non duzu ba, gizona?

- Bart behar egin du, eta atsedean hartzeko iturrira joan da berriketaldia egitera.

- Jakina! Jakina! Izan bere fina da zuen Tomas! -argitu dio bi besoak sorbaldan ipinita dituen apaiz gurenak.

Kukuak ez ezik zozoek eta birigarroek ere kantu egiten dute eurengandik hurbil. Eta apaizak esan dio gozamen handia dela Jainkoaren halako kreaturei entzuten egon ahal izatea.

Hamar bat minututan egon dira berbetan eta, apaizak aitortu dionean izerditzen hasi orduko abade-etxean egon gurako lukeela, igandeko mezan berriro ikustekotan geratu dira.



Elizako erlojuak hamabietako kanpai-hotsak jo dituenean etxeko katua azaldu zaio solora. Lehenengo bere ondoan geratu da miauka, baina, jaramonik ez dionez egin, buztana tente jasota gorputzaz bernak igurzten hasi zaio. Hegaztiak isildu egin dira, egarri da, eta aitzurraren kirtenak esku izerdituetatik labain egiten dionez, soloko beharrak amaitzeko ebatzia hartu du.

Aitzurra soloan utzi du arrastian arta-jorran jarraitzeko, eta etxera bueltatu da. Irratia isiotu du, eta zartaginean sardinak erretzen hasi da. Lar erre ez daitezen surtako sua zaintzen duen bitartean, irrati bidez jasotako mezuan, gero eta arreta gehiago jartzen hasi da. Hitz-erantzunen jokoan nahastuta, irratikoek arrapaladan egiten dute berba gizonezkoen eta andrazkoen artean dauden ezberdintasunei buruz.

Isilune baten ondoren, ostera, irrastian dagoen esatarietarikoko batek ahotsa jasoz bota du: “gizonezkoek esan egiten dute pentsatzen dutena, eta, andrazkoek, pentsatu egiten dute esaten dutena”. Berehala, esatarien artean dagoen berriketaldiko arduradunak zoriondu egin du adierazpenaren jabea, egindako hausnarketa hain zehatzagatik. Eta orduan, laudorioa jaso duen pertsonak argitu du: “irratsaio hau prestatzeko goizeko bederatzietan hasi naiz nire bulegoan gogoetak egiten”.

Surta ondoan sardina erreak epel mantendu daitezen, haiek pilatuta dauzkan platera beste plater batekin estali du. Eta, bazkaltzen oraindik ez direnez hasiko, senarrak astitsu hartu duelako iturri ondoko egotaldia, irratiko diala aldatzen hasi da. *Radio Nacionalaren* ordeztan, *Radio Arate* hartu gurako luke; behin Ezcurdiko plazan ezagutu zuen Julene Azpeitiak egiten duen “*Enakumezkoak*” izeneko irratsaioa entzuteko.



oleariak



Iraia Gamiz Macias

Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean

Landako eskola



julene azpeitia lehiaketa • 2015 urtea




Txitoa

Behin amak
azokara eraman ninduen.
Han txito bat erosi zidan.
Txitoa kartoizko kutxa batean zetorren.
Amak nire eskuetan jarri zuen kutxa.

Senti nezakeen
nire esku-ahurretan
txitoaren hanka txikiak.

Liburua horixe da:
kartoizko kutxa bat
barruan zerbait bizia duena.






oleariak



*Beñat Santiesteban
Fernandez*

Irabazlea 13-14 urte bitartekoen sailean
Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa • 2015 urtea



Natura

Hor goian belardia
trostan-trostan dabil zaldia
menditik ematen dut ibilaldia
hori baita nire gustuko aisialdia

Kri-kri-kri ari da kilkerra
Bere ondoan txirrita alperra
belarra jaten ari da akerra
bazterrean dago muskerra

Itsaso urdina
bertan hainbat sardina
hortik dabil izokina
dena da hain atsegina

Ai zelako erreka
harritik- harrira noa saltoka
hor dago niri barreka
arrain luze eta gorrixka

Hau da gure natura
gehienbat da ura
zain dezagun hura
hau da denon ardura





orientat



Leire Sarrugarte Isusi

Irabazlea 15-16 urte bitartekoen sailean
Fray Juan de Zumarraga Institutua



julene azpeitia lehiaketa • 2015 urtea



Laguna

Azal misteriotsua duten
altxor txikiak,
azal esanguratsuari
zentzua emango dieten hitzak,
bata bestearen ondoan,
ezagunak, zein ezezagunak.


Bertako pasadizo,
erreal eta irrealak,
hunkigarriak bene-benetan.

Gertakizunen atzean, ezkutuan,
gizon zein emakume baten ideia paregabeak.

Esnatzean, horrenbeste letrekin
zorabiatzen zaituen bera da,
arratsaldez, algarak, negarrak eta
beste maila bateko emozioak
pasaraziko dizkizuna.

Horixe bera da
liburua.

Amaitzear dagoenean
jakin minak sentiarazten dizun
arnas-estua,
zirrarak eragindako
arnas-estua.



Hasieran ulertezina den hori
amaieran argituko dela jakitean
sentitzen den lasaitasuna.

Beti zure ondoan izango den
lagun kide aparta.
Zabalik,
hitz egiten duen bihotz bat da,
itxita,
zain egongo den lagun bat.




oleantziak



Alazne Lopez Aranberria

Irabazlea 17-18 urte bitartekoen sailean
Ibaizabal Ikastola



julene azpeitia lehiaketa • 2015 urtea



Arratsaldeko bigarren gutuna

Erlojuari
Pasa den denbora, galdu den denbora
Nora joan den galdetu ezker
Ez dizu erantzungo,
Ez erantzunik ez duelako, ez
Baizik
Handiak diren sekretuak
Guretzat gordetzen ditugulako,
Gureak bakarrik direnean direlako sekretuak sekretu.
Erlojuak ez du sekretu askorik, noski
Baina bere sekretua, sekretu handia da,
Inportantea
Eta erlojuari pasa den denbora nora joan den galdetu ezker
Denbora galdu besterik ez duzu egingo.

Berri txarrak, norabiderik gabe idazten ari naiz
Berri txarragoak, ez dakit noiz galtzen dudan denbora
batzuetan, idazten
Baina zuk ez duzu inoiz eleberririk idatzi
Ez poemarik
Orduan, ezin dut zure bihotza irakurri
Askotan ez dakit zein itsasotan galduta zauden,
Edo noiz eman zenidan amore.
Guri buruz abesti bat ere idatziko nuke
Zuri buruz, zuri idatziko nizuke abestia
Gure abestia
Baina ez da erreza, ez pentsa
Hitzek hegan egiten didate
Eta ez dakit kantatzen.

Begira, azken aldian ez nago ondo,
Galduta bezala nabil
Leku askotan nago
Eta ez dut nora joanik,
Nire-nirea dela arazoa esaten didazu beti
Eta nik ere azkenean ikasi dut arrazoa duzula hortan
Baina zure begietan galtzeko ez dago iparrorrazaren beharrik,
Eta oso erraz galtzen naiz ni beti.

Esan dizut abesti bat egin nahi dizudala
Baina hobe ezetz, hobe gutun hau idazten badizut
Arratsaldeko bigarren gutuna.
Badakit ez zaizula irakurtzea gustatzen,
Ni irakurtzeko gogorik ere ez duzu
Eta nik eleberria oraindik ez dut amaitu
Eta poemak ez ditut argitaratuko
Ezer gutxi dut, hitzez hitz zu bustitzeko
Baina ez zaizu irakurtzea gustatzen...



Badakizu aukera gutxi gelditzen zaizkigula,
Aukera bat gutxiago
Eta niri are gutxiago, ez nago oso ziur zenbat
Horregatik ez duzu jakingo arratsaldeko lehenengo gutuna
Nori idatzi diodan
Haserretu egingo zinelako
Eta egia esan, nik ere ez dakit oso ondo norentzat den
Baina gorrotoa diot gutunari, zure postontzian egongo ez delako inoiz
Eta gorrotoa diot idazten dudan guztiari
Eta zuri, eta niri, eta atzean gelditu diren guztiei
Zuri lehenengo gutuna idatzi ezin izan dizudalako
Ezin izan dudalako
Ezin izango dudalako.
Gaur astelehena ere bada, eta gorrotoa diet astelehenenei,
Baina inori ez dio axola, inori ez zaizkiolako astelehenak gustatzen.






bertsoak



Ander Sarriguarte Garcia

Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean
Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa • 20015 urtea



Mugikor bat naiz



Nire jabearekin pixkatxo
bat ni arduratute nau,
negar ta negar bera ibiltzen
da bai egun eta bai gau.
Nire jabetxoak esaten dau
ni nauela “estropeau”,
mugikor berria nahi dau berak
tragedia itzela hau,
mugikorrak zergatik ezin ga
nahi dogunien suizidau.

Bueno agian arrazoia du
denak ditut oin begira,
aldaketa ez da izan txarra
hori egia da, tira,
itzelezkoa baita orain nik
pantailan dudan distira,
orain jabeen amona dabil
galderai jira ta bira:
Samsung galaxy edo iphone bat
beharrezkoak ahal dira.

Nire jabeak zakarrontzian
gaur goizean ni lagata,
egin duen gauzarik onena
izan da beharbada,
tristetahun ta negar artean
egin dit azken begirada,
berak eta nik sentitu dugu
itzelezko ikara,
mugikorreratik ez zaio ez
berpiztu bere zirrara.






bertsoak



Txaber Altube Sarrionandia

Irabazlea 17-18 urte bitartekoen sailean
Fray Juan de Zumarraga Institutua



julene azpeitia lehiaketa • 20015 urtea



Kale-kantotik



Doinua: kale-kantoiari (7 eskale)

Eguzki printzek esnatu naute
Zarpaildutako koltxoian
Lantokiraino ailegatu naiz
Logalearen bagoian
Bilbon Gran Vian ezker parteko
Seigarren kale-kantoiari
Txirula zaharra esku artean
Ta txapela espaloian

Dendek atean jarri orduko
“zabalik dago” kartela
Nota galduez betetzen dut nik
Goizaren isil ospela
Baina jendeak mespretxatzen nau
Erakutsiaz bezela
Eskaparate gabe dagoen
Maniki hutsa naizela

Dena da presa uri handian
Eguna jaio berritan
Gizon gazte bat arnas estuka
Erlojuaren ritmikan
Gidari oro semaforoa
Berdetzeko irrikitan
Eskerrak batzuk patxadan gauden
Martxa eroen karrikan

Gazte jendea burua janda
Traola eta ber-txio
Beti bera den nerabe baten
Hamaika mila bertsio
Prototipoen erlijio ta
Itxuraren prozesio
Haien zerua etsai txarrenei
Ere ez diet desio

Mutil txiki bat inguratu zait
Txirularen konpasera
Atzetik ama ondo jantzi bat
Semetxoa salbatzera
Antza ez zaio aski gustatu
Nire eskale-janzkera
Semeak ere ulertuko du
Hemendik hoge urtera





Lau neska datoz poltsaz beteta
Ta beteago sakela
Erakutsiaz kale osoko
Aberatsenak direla
Haien arima nazkagarriei
Darien usain ustela
Coco Chanelez zipriztinduta
Kenduko balitz bezela

Hamaika ordu pasa ondoren
Txirula hotsen esklabo
Farolak ere piztu dira ta
Ohera bidean nago
Diru-zorroa huts-hutsik eta
Bihotza are hutsago
Iparrizarra aurkitu nahian
Inoiz baino hegorago





bertsoak




Karmele Mitxelena Etxebeste

Irabazlea 18tik urte gorakoen sailean



julene azpeitia lehiaketa • 20015 urtea



Itota



1.

Kosta zait bi betazalak
jaso eta ez jaistea,
goizaren bakardadera
gorputz hil hau berpiztea;
ikus nahi ez denean
ohearen isilpea
errazegia delako
begiak berriz ixtea.
Azkenaldian bihurtu
da horren gauza tristea
pertsiana zabaltzea
edo argia piztea.
Mundua sortu zuenak
izan zuen despistea,
nori okurritzen zaio
borobila egitea?

2.

Borobilaren gainean
dena da imperfektua,
guztia da amorfoa,
forma ezin ulertua.
Gaua da formak galtzeko
ordua eta lekua,
ahazteko edatea,
horixe da sekretua.
Goizean pasatzen bada
whiskyaren efektua
da ez delako atera
ondo esperimientua.
Ta heltzen da memoria
zaharraren mendekua,
atzo ahaztutakoak
oroitzeko momentua.

3.

Larunbatak, igandeak
eta orain astelehenak,
whiskya ez da bukatzen
hori du txarra tabernak.
Bezero fidela egin
nau edalontzi gardenak,
izotzei erreztatuz
maitasunezko poemak.
Azken tragoak bihurtu
ohi zaizkit azken aurrenak,
beti bat gehiago behar
izaten baitu barrenak.
Biharamunak ekartzen
ditu buruko min denak,
inoiz ez bezala mintzen
du zure oroitzapenak.

4.

Ohearen bestaldera
luzatu dut atzamarra,
hutsune bat ukitzeko,
hutsune bat hotz xamarra.
Zimurtu ez den izara
hain da sentsazio txarra,
alboan norbait desio
duenaren zoritxarra.
Hotzikaratu naiz eta
dardarka jarri bizkarra,
maindireez estaltzeko
gogoz egin dut indarra.
Sentitzen dut maindireen
epela gorde beharra,
bera baita konpainia
egiten didan bakarra.

5.

Nire gorputza ohetik
altxatzera derrigortu,
leioha zabaldu eta
aurpegia zait berotu.
Badirudi eguzkiak
behar nauela zigortu
galdeketetako argi
zuriz baita mozorrotu.
Begiak erdi itsuan
guztia diot aitortu,
atzo mozkortu nintzela,
gaur nahi dudala mozkortu.
Buruko mina handitu
ta ahoa dit lehortu,
eguzkia ez zen bizi
nahi ez dugunontzat sortu

6.

Gorpu bat besterik ez naiz,
gorpu bat akabatuta,
erdi hildako gorpu bat
ezin bizitza kenduta.
Alde egin baitzenuen
nere bizitza ostuta
eta geroztik ari naiz
hiltzen apurka-apurka.
Leioha azkar itxi dut
gogoak aguantatuta,
azken aldian sentitzen
naiz oso konbentzituta.
Aldiro leihotik salto
egiteko tentatuta,
egingo nuke hiltzeko
bizitzaren bat baneuka.





7.

Gau-mahaiko egutegiak
egin nau bere esklabo
denbora gelditu nahian
nabilelako luzaro.

Pasa den egun bakoitza
gurutze batekin dago,
denbora tatxatzen bada,
denbora ez da igaro.

Baina tatxoiak kontatzen
noa ia lau urtaro,
zer kontatzen dudan ere
jada zalantzatan nago;
zu ikusteko geratzen
den egun bat gutxiago
edo zu gabe pasako
dudan egun bat gehiago.

8.

Nahiz jakin ez bueltatzeko
egin zenuela alde,
zain nago ezer espero
ezin duenaren pare.

Minutuak isiltasun
ta orduak bakardade,
denborak hil nahi nau baina,
hil nahi nau oso xuabe.

Ahazteko bihurtzean
oroitzapenak JB,
ni eta nire guztia
itota hiltzear gaude.
Munduak biraka darrai
gelditu gabe halare,
azpian nor harrapatzen
duen begiratu gabe.